

# EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAN 2018-2021

Oreka sarea
BERDINTASUNA | IGUALDAD
PARTAIDETZA | PARTICIPACIÓN
LANKIDETZA | COOPERACIÓN

CUADRILLA DE CAMPEZO
MONTAÑA ALAVESA
KANPEZUKO ARABAKO
MENDIALDEKO KUADRILLA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna | Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO

# AURKIBIDEA

**I. ZATIA  AURKEZPENA**

1.1. Sarrera

1.2. Araudi testuingurua
1.3. Erakunde arteko koordinazioa
1.4. I. Plana egiteko prozesua

**II. ZATIA  ESKU-HARTZE ARDATZAK**

2.1. Gobernu Ona
2.2. Emakumeen ahalduntzea
2.3. Ekonomiak eta gizarte antolaketa eraldatu eskubideak bermatzeko
2.4. Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

**III. ZATIA  KUDEAKETA EREDUA**

3.1. Garapen eta jarraipen sistema
3.2. Ebaluaketa sistema
3.3. Baliabide ekonomikoak

# I. ZATIA: AURKEZPENA ETA TESTUINGURUA

# KUADRILLAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANA 2018-2021

# 1.1 AURKEZPENA

Arabako Mendialdeako Kuadrilla Arabako probintzia osatzen duten zazpi Koadriletako bat da. Hiriburua Kanpezu da. Kuadrilla Arabako hego-ekialdean dago eta 534,87 km2-ko azalera du, gehiena 600 metrotik goragoko altitudean. 6 udalerrik osatzen dute: Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Harana, Lagran eta Urizaharra, 39 administrazio-batzarretan antolatutako 47 herritar-gune.

Egun, kuadrillan 2.954 pertsona inguru bizi dira. Horietatik %43 emakumeak dira.

Azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren arabera, Kuadrilla foru lurralde erakunde gisa osatuta dago, Udalerriez osatua bere lurraldean eragina duten interes orokorreko gaietan parte hartzeko eta horiek sustatu eta kudeatzeko. Era berean, Kuadrilla garatzeko udalerriak baino zabalagoak diren espazioak behar dituzten politika orokor edo sektorialak ezartzeko lurralde mako bezala osatzen da.




Era berean, 2016ko irailean berdintasun alorreko ekintzak burutzea sustatzen duten Arabako koadriletan berdintasun egiturak sortzeko oinarri arautzaileak eta diru-laguntza deialdiak onartu ziren, 59/2016 Foru Dekretuaren bidez. Azaroaren 15ean deialdia ebatzi zen, lurraldeko koadriletan Berdintasun teknikariak kontratatzea martxan jarriz, Gasteizko kuadrillan izan ezik.

Espezializatutako teknikariak kontratatzeak eta ondorioz Arabako Mendialdeako Kuadrillan Berdintasun Zerbitzua martxan jartzeak, udalerriz gaindiko gobernantza eredu bat ezartzeko aukera eskaintzen du, berdintasun alorreko tokiko politiken garapenean laguntzen duena eta garapen horretarako gutxienezko baldintzak ezartzen dituena. Horretarako, ezinbestekoa da marko estrategiko bat eskaintzen duen eta berdintasun tokiko politiken jarraikortasuna eta garapen sistematikoa bermatzen duen Planifikazio bat izatea.
de subvenciones para la creación de

# 1.1 AURKEZPENA



Testuinguru horretan, Arabako Mendialdeako Kuadrillak bere Batzarraren bidez 2017an emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa eta Kuadrilla mailako I. Berdintasun Plana egiteko prozesua martxan jartzea onartu du. Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak ibilbide motza duenez, prozesu honen helburu nagusia udalerriz gaindiko gobernantza eredu baten oinarriak egonkortzen hastea izan da, politika publikoak berdintasun eremuan garatzeko ikasketa eta gaitasuna sustatzen duen metodologia parte-hartzaile baten bidez.

Identifikatu diren lehentasunak, helburu eta neurri zehatzak sortu dituztenak, diagnostikoaren bidez egindako analisitik sortu dira. Era berean, lan espazio parte-hartzaileak azpimarratu dira, bildutako informazioa alderatzeko eta lehentasuna duten lan-eremuei buruzko ikuspegia osatzen duten informazio osagarria jasotzeko.

Ondoren aurkeztuko dugun emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako I. Planaren dokumentua egiteko ezinbestekoa izan da Kuadrillako teknikarien -duten erantzukizun publiko, ezagutza eta esperientziatik- eta osatzen duten udalerrien partaidetza aktiboa, baita Udaletako arduradun publikoek berdintasun politikak elkarrekin sustatzeko konpromisoa ere. Era berean, ezinbestekoa izan da Kuadrillako emakumeen eta lurraldean lan egiten duten eragile klabeen partaidetza aktiboa ere.

Emakume eta gizon horiei guztiei elkarrekiko arduraz ibiltzeko helarazi diguten denbora, energia eta proposamenak eskertu nahi dizkiegu, bakoitzak euren espazio eta erantzukizunarekin, Arabako Mendialdeako Kuadrillako gizartearentzat orokorrean eta emakumeentzat bereziki, bizi-helmuga hoberantz ibiltzeko.



# 1.2. ARAUDI TESTUINGURUA: tokikotik globalera

**EAE**
- Emakume eta gizonen berdintasunerako VI. Plana
- Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea

**ESTATUA**
- Genero indarkeriaren kontra babes osoa emateko neurriei buruzko 1/2004 Legea
- Emakume eta gizonen benetako berdintasunerako 3/2007 Legea
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta artapena sustatzeko 39/2006 Legea

**ARABA**
Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako IV. Foru Plana

**EUROPA**
- Erroma (1957), Maastricht (1992) eta Amsterdameko itunak (1997)
- Europako Konstituzioa, Europako Kontseilua 2004
- Berdintasunerako Ekintza Estrategikorako Batasunaren (2010-2015)

**ARABA**
Arabako Toki Erakundeen Finantziatzioaren Foru Funtsa
19/2017 Foru Agindua

**NAZIO BATUAK**
- Giza eskubideen adierazpen unibertsala, 1948
- Emakumearen eskubide politikoen gaineko konbentzioa, 1952
- CEDAW konbentzioa,1979
- RES AG 48/104 Adierazpena, emakumearen kontrako indarkeria desagerraraztekoa, Viena, 1993
- Emakumeen gaineko Mundu Konferentziak Tokian tokikotik globalera (1975, 1985, 1995)

**MENDIALDEKO KUADRLLA**
Arabako Kuadrilletan Berdintasun egiturak sorttu
59/2016 Foru Dekretua

MENDIALDEKO KUADRILLA


6

# 1.3. ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA

Arabako Foru Aldundiak 2016-2020 Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako IV. Foru Planean Arabako Lurralde Historiko guztian berdintasuna sustatzen duten neurri sorta barne hartzen du. Neurri hauen markoaren barruan, 2016ko azaroan AFAk 6 Berdintasun Teknikari kontratatzea sustatu eta finantzatu zuen (1 kuadrilla bakoitzeko, Gasteiz salbu). Kontratazio honen ondorioz, teknikarien arteko eta AFAko Berdintasun Zerbitzuaren arteko koordinazioa eta sare lana Koadriletako Berdintasun Teknikarien funtzioetako bat bezala osatu da.

Koordinazio horretan laguntzeko, Berdintasun Teknikarien Lurralde Sarea sortu da, Berdinbidean Araba Zerbitzuak dinamizatutako lan espazio egonkorra, non 6 koadriletako berdintasun teknikariek parte-hartzen duten.

Berdinbidean Araba 2010. urtean sortu zen aholkularitza zerbitzu gisa berdintasunaren alorrean lurraldeko tamaina txikiko udalerrietan. Egun, AFA du buru eta Emakunde eta Eudelen kolaborazioa du. Kuadrilla mailan berdintasun teknikariak kontratatu ondoren, Berdinbidean Zerbitzua udalerriz gaindiko berdintasun gobernantza eredu berri honetara egokitu da, eta aldi berean, erakundeen arteko harreman eta koordinazio tresna bat bezala osatu da.

Testuinguru honetan identifikatu diren lan lehentasunak, Plan honen helburu eta neurri zehatz bihurtu direnak, koordinazio honekin elikatzen dira eta beraz, EAEko administrazio publikoko maila ezberdinetako berdintasun politiken arteko koherentzia bermatzeko beharrari erantzuten diote.

Laia Eskola Berdintasunerako eta Ahalduntzerako Eskolaren sorrera, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako IV. Foru Planak aurreikusten dituen beste neurrietako bat da. 2017an Laia Eskola kuadrilla guztietan inauguratu da eta Arabako Lurralde Historikoko emakumeen ahalduntzerako tresna gisa osatu da.

Administrazio ezberdinen berdintasun politiken arteko koherentzia eta koordinazioa indartzen jarraitzeko, Plan honen ahalduntze eta balore aldaketaren ildo estrategikoak Laia Eskola du horiek garatzeko oinarrizko tresna bezala. Honi dagokionez, hautemandako lehentasunetako bat, Planaren bidez erantzun nahi dena, gogoeta eta kontzientzia hartzeko espazioak ezartzea da. Horien bidez, lurraldeko emakumeek genero interes estrategiko propioak identifikatu eta artikulatu ditzakete. Zentzu honetan, Laia Eskolak espazio horiek erraztea garrantzitsua da, eta bere planifikazioan emakumeek egiten dituzten ekarpenak barne hartzea.


7

# 1.4. I. PLANA EGITEKO PROZESUA

Plana egiteko ezarritako metodologia diagnostikoa eta plana egiteko faseak barne hartu dituzten metodo eta teknika ezberdinen bidez egin da. Hau da, faseak elkarren artean konektatuta egon dira, eta batzuetan paraleloki eman dira proiektua gauzatzeko denbora mugatua delako, diagnostikoak egiteko edota emakume eta gizonen berdintasunerako planak egin eta ebaluatzeko beharrezko aholkularitza teknikoa ematera bideratutako Emakunderen diru-laguntzaren ebazpenetik.

Era berean, informazioa biltzeko teknikak erabili dira, kuantitatibo zein kualitatiboak, eta gogoeta, eztabaida eta proposamenak sortzeko espazio kolektiboei garrantzi handia eman zaie. Zentzu honetan, prozesuari izaera parte-hartzailea eman nahi izan zaio truke eta kontraste partaidetza espazioak eginez, hasierako diagnostikoa eta planifikazio fasea elikatzeaz gain genero alorreko ikasketa eta gaitasuna sustatzen dutenak.

Termino orokorretan, hauek izan dira egin diren ekintza nagusiak:

- ✓ **Datu estatistikoen analisia:** Bildu beharreko datuen izaeraren arabera, informazio-iturri ezberdinak izan dira. Dena den, kasu askotan sexuaren arabera banatutako eta Kuadrillarenak bakarrik diren datuak lortzeko zailtasuna aipatu beharra dugu. Oraindik ez dira datu guztiak sexuen arabera edo beste aldagai batzuen arabera -adina, jaioterria edo nazionalitatea- banatzen, eta horrek Kuadrillako errealitate zehatzaren analisia zailtzen du hein handi batean. Errealitate hau Kuadrillako barne-iturri eta udalerrietan zein Kuadrillatik kanpoko iturrietan eman da.
- ✓ **Kuadrilla eta udalerrietako barne-dokumentazioaren analisia:** Jarduera memoriak, ebaluazio txostenak, jarduera programak, etab. (dagokion eremu bakoitzean horien eskuragarritasunaren arabera).

✓Kuadrillako sail eta zerbitzu ezberdinetako teknikari arduradunekin **erdi-egituratutako banakako zein taldeko elkarrizketak.**

✓Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuarekin **alderatzeko edota itzultzeko bilerak.**

✓Informazio, gogoeta eta proposamenak jasotzeko eta horiek aztertzeko **espazio kolektiboak ezartzeko gogoeta ekintza tailerrak.**

✓**"Kuadrilla arteko" koordinazio saioak,** Añanako eta Mendialdeko Kuadriletako teknikari eta politikariekin:

Guztira, 35 pertsonek parte hartu dute. Horien %68,5 emakumeak izan dira. Parte hartu duten pertsonen artean, herritarrak eta emakumeen ehun asoziatiboa (Kuadrillako 16 emakume); Kuadrillako eta udaletako teknikariak (Gizarte Zerbitzuak, Gerentzia, Ekonomiaren Sustapenerako Atala, Jurista, Prebentzio Soziokomunitarioko teknikariak, Animazio Soziokomunitarioko teknikariak, "Micaela Portilla" zuzendaritza taldea eta Berdintasun Zerbitzua); Politikariak (Kuadrillako presidentea eta udalerri ezberdinetako zinegotziko eta alkatetzak); erakundeak (3 ikastetxeak eta emakumeentzako gizarteratu taldeko koordinatzailea).


8

# II. ZATIA
# 1.ARDATZA: GOBERNU ONA
# EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAN
# 2018-2021

# II. ZATIA
# 1.ARDATZA: GOBERNU ONA

# 1. ARDATZA- 1. PROGRAMA: Genero ikuspegia zeharkakotu ahal izatea eta nahi izatea

Gobernu Onaren ardatzetik oinarrian Arabako Mendialdekoko Kuadrilla osatzen duten langileen konpromiso politiko eta teknikoa egonkortu nahi da, genero zeharkakotasunaren estrategia garatzeko eta beraz, botere publikoen politika eta ekintza guztietan genero ikuspegia sartzeko printzipioa eraginkor bihurtzeko, Emakume eta Gizonen arte Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 artikuluak ezartzen duen bezala.

Estrategia honen garapenaren oinarria da emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lana ez dela politika publiko bakar baten eskumenekoa, baizik eta guztiak barne hartzen dituela, eta beraz, denek dute erantzukizuna bere garapenean. Zentzu honetan, Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak tokiko zein Kuadrilla mailako gainontzeko eremuak berdintasun eremuko bultzada eta aholkularitza organo gisa konfiguratzen ditu.

Estrategia honen zutoinak ezarri eta sendotzeko beharrezkoa da alde batetik “nahi” kolektiboa berreditatzea, hau da, elkarrekin aurrera egiteko berariazko borondatea, Udaletan eta Kuadrillan agindua berrituz, Planean adostutako neurriak ezartzeko beharrezko konpromiso ekonomikoa egonkortzen den bitartean.

Bestalde, oinarrizkoa da erabakiak hartzeko klabe diren egiturak egokitzen eta egiturak, harremanak, lan-moduak eta komunikazioa formalizatzen duen genero arkitektura sendotzea, Kuadrilla mailako berdintasun politikak sustatzeko estrategia bat eraginkor egiten dutenak. Era berean, genero arkitektura bat ezartzearekin batera politikari zein teknikariek estrategia hori garatzeko beharrezkoa den denbora dutela bermatzeko lan-zamen berrikuspena egin behar da.

Apustu hau ondorengo bi helburu estrategikoetan zehaztu da:

**1.1** — **HELBURU ESTRATEGIKOA**

- Kuadrillako berdintasun politikekiko konpromiso politiko eta teknikoa egonkortu

**1.2** — **HELBURU ESTRATEGIKOA**

- Kuadrillako egitura organikoan sartutako genero arkitektura bat finkatu


11

# 1. ARDATZA- 1. PROGRAMA: Genero ikuspegia zeharkakotu ahal izatea eta nahi izatea

HELB EST 1.1

- Kuadrillako berdintasun politikekiko konpromiso politiko eta teknikoa egonkortu

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.1.1.Kuadrilla mailan berdintasun politiken ainguraketa politikoa sendotu. | 1.1.1.1.Kuadrillako Batzordearen papera I. Plana bultzatzean, garatzean, jarraipenean eta ebaluazioan duen papera indartu, berdintasun politiken erabakiak hartzeko organo formal bezala. | Kuadrillako Batzordea eta presidentea | X | X | X | X |
| | 1.1.1.2.Kuadrilla mailan berdintasun politikaren kudeaketa Emakume eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen ikuspegi juridikoaren eta aginduari egokitzetik sendotzera bideratutako gogoeta espazio bat ireki. | Kuadrillako presidentea eta Berdintasun batzorde politikoa | X | X | X | X |
| | 1.1.1.3.Kuadrilla mailan berdintasun politikak sustatzeko estrategiaren garapen eta zabalpenerako aurrekontu partida zehatz bat finkatu eta pixkanaka handitzen joan. | Kuadrillako Batzordea | | X | X | X |


12

# 1. ARDATZA- 1. PROGRAMA: Genero ikuspegia zeharkakotu ahal izatea eta nahi izatea

HELB EST 1.1

- Kuadrilla mailan berdintasun politiken ainguraketa politikoa sendotu.

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.1.2. Eremu tekniko ezberdinen artean berdintasun politikak ezartzean erantzukizun partekatuko gradua handitu (tokiko eta kuadrilla mailan). | 1.1.2.1. Helburu eta jarduera zehatzak definitu diren eremu eta programa guztietan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera bideratutako aurrekontu baliabide berriak ikusarazi eta barne hartu, modu horretan berdintasun politiken finantzazioan erantzukizun partekatua handituz | Kuadrillako eta udaletako arloak eta zerbitzuak | | X | X | X |
| | 1.1.2.2. Existitzen diren edo sortu berri diren lan-talde teknikoetan parte hartu, non Kuadrillako Berdintasun I. Planaren zeharkako neurriak koordinatu eta ezartzeko jarraibideak garatzen diren. | Kuadrillako eta udaletako arlo eta zerbitzuak | X | X | X | X |
| | 1.2.2.3.Kontratazioetan berdintasun klausula sartzeko prestakuntza eta praktika bateratzen duen prozesua abiarazi | Kuadrillako gerentea eta udaletako idazkariak eta Kontu-hartzaileak | | X | | |
| | 1.2.2.4. Kuadrillako eta udaleko barneko eta kanpoko komunikazioan erabiltzen dela hizkuntza ez sexista – bai idatzitako hizkuntza mailan bai irudietako – bermatzea . | Berdintasun zerbitzua eta Kuadrillako eta udaletako arlo eta zerbitzuak | X | X | X | X |


13

# 1. ARDATZA- 1. PROGRAMA: Genero ikuspegia zeharkakotu ahal izatea eta nahi izatea

HELB EST 1.1

- Kuadrilla mailan berdintasun politiken ainguraketa politikoa sendotu.

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.1.3. Kuadrillak berdintasun politiketan duen eragiteko gaitasuna handitu instituzioen arteko solasaldi espazioetan parte hartuz | 1.1.3.1. Instituzioen arteko solasaldi espazioetan parte-hartzen jarraitu, horien artean Berdintasun Teknikarien Lurralde Sarea. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 1.1.3.2. Kuadrillako eta Arabako Foru Aldundiko berdintasun politikak sustatzen dituzten instantzien arteko maila politikoko harremana indartu.. | Kuadrillako presidentea | X | X | X | X |


14

# 1. ARDATZA- 1. PROGRAMA: Genero ikuspegia zeharkakotu ahal izatea eta nahi izatea

HELB EST 1.1

- Kuadrilla mailan berdintasun politiken ainguraketa politikoa sendotu.

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT. 1.1.1.**
1.1.1. Kuadrillako berdintasun politikekiko konpromiso politiko eta teknikoa egonkortu.

- ❑ Kuadrillaren Batzordearen zeinetan taldearen berdintasun politikei eskainitako gai-zerrendaren puntua sartzen den bileretako ehunekoa (Iturria: bilera-aktak).
- ❑ Kuadrillaren Batzordeagatik I. Planari dagokionez, eta/edo berdintasuneko, eta hartutako erabakietako politikekiko erlazionatutako beste gai batzuen Berdintasunerako hartutako erabakien erlazioa (Iturria: bilera-aktak).

**HELBURU ESTRAT. 1.1.2.**
1.1.2.. Eremu tekniko ezberdinen artean berdintasun politikak ezartzean erantzukizun partekatuko gradua handitu (tokiko eta kuadrilla mailan).

- ❑ Arlo desberdinek I. Planaren neurrien garapenari espezifikoki bere urteroko aurrekontuetako Kuadrillaren Berdintasunerako eskaintzen dizkioten kopuruen handiagotzeko ehunekoa (Iturria: Urteko Plan Operatiboa: Kuadrillaren Berdintasunerako I. Planaren jarraipen fitxak)
- ❑ Kuadrillaren Berdintasunerako I. Planaren lantaldeetan teknikoa zeharkako neurriko inplementaziorako parte duten arlo kopurua (Iturria: bilera-aktak).
- ❑ Hizkuntza ez sexista darabilten idatzitako dokumentu eta irudien ehunekoa.

# 1. ARDATZA- 1. PROGRAMA: Genero ikuspegia zeharkakotu ahal izatea eta nahi izatea

HELB EST 1.1

- Kuadrilla mailan berdintasun politiken ainguraketa politikoa sendotu.

**HELBURU ESTRAT.** 1.1.3.
1.1.3. Kuadrillak berdintasun politiketan duen eragiteko gaitasuna handitu instituzioen arteko solasaldi espazioetan parte hartuz

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

- ❑ Erakunde arteko lantaldeen esparruan Berdintasun Zerbitzuarekin erlazionatu diren udal erakundeen eta udalaz gaindiko erakundeen kopurua. (Iturria: urteko kudeaketa planen jarraipen fitxak)

# 1. ARDATZA- 1. PROGRAMA: Genero ikuspegia zeharkakotu ahal izatea eta nahi izatea

HELB EST 1.2

- Kuadrillako egitura organikoan sartutako genero arkitektura bat finkatu

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.2.1. Kuadrilla mailan berdintasuna sustatzeko estrategia bat zabaltzeko aukera ematen duten lan egitura eta harremanak finkatu. | 1.2.1.1. Kuadrillako Berdintasun Politika Kuadrillako berdintasun estrategia indartzen duen, akordioak modu koordinatuan eta elkarrekin hartzea errazten duen eta Kuadrilla osatzen duten udalerri eta erabakiak hartzean herri ezberdinen errealitateak aintzat hartzen dituen lan egitura gisa egonkortu. | Berdintasun Batzorde politikoa eta Kuadrillako presidentea | X | X | X | X |
| | 1.2.1.2. Udal bakoitzean berdintasun politiken arduradun politikoaren irudia finkatu. Kuadrillako Berdintasun Batzorde Politikoan parte hartuko duen irudia, eta bere udalerrian Kuadrillaren berdintasun estrategia zabaltzen dela zainduko duena. | Udalen berdintasun politiketako arduradun politikoak | X | X | X | X |
| | 1.2.1.3. Kuadrillako berdintasun politiken maila teknikoko erreferenteen irudia finkatu udaletan idazkari eta kontu-hartzaileen bidez, Berdintasun Zerbitzuaren eta Udalen arteko komunikazio eta interrelazio bideak formalizatzeko eta udalerrietan berdintasun estrategiaren zabalpena indartzeko. | Udalen idazkariak eta Kontu-Hartzaileak eta Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |


17

# 1. ARDATZA- 1. PROGRAMA: Genero ikuspegia zeharkakotu ahal izatea eta nahi izatea

HELB EST 1.2

- Kuadrillako egitura organikoan sartutako genero arkitektura bat finkatu

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.2.2. Erantzukizun partekatutik, eremu eta zerbitzu ezberdinetan genero ikuspegia barne hartzea bultzatu, partekatutako koordinazio egituretan parte hartuz. | 1.2.2.1. Kuadrillako Berdintasun Batzorde Teknikoa Kuadrillak kudeatzen dituen eremu eta programa ezberdinetan genero zeharkakotasunaren estrategia zabaltzeko aukera ematen duen lan egitura gisa egonkortu. | Udaletako eta kuadrillako Berdintasun zerbitzua eta teknikariak | X | X | X | X |
| | 1.2.2.2. Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta I. Planean adierazitako neurriak gauzatzeko ardura duten teknikarien arteko koordinazio espazioak gauzatu. | Kuadrillako Berdintasun zerbitzua eta teknikariak | X | X | X | X |
| | 1.2.2.3. Lanpostuetako zamen berrikuspen globala egin, teknikariek euren ardurapeko politika eta programetan genero ikuspegia ezartzeak behar duen denbora dutela bermatzeko. | Kuadrillako Batzordea eta Berdintasun Batzorde Teknikoa | | | X | X |
| 1.2.3. Kuadrillako berdintasun politikak garatzean herritarren parte-hartzea sustatu, Kuadrillako klabe diren eragileekin lan-egituren eta harremanen bidez, eta zehatzago emakumeen elkarteekin eta banakako mailan. | 1.2.3.1. 4 ikastetxe eta prebentzio soziokomunitarioko teknikaria parte hartzen duten Hezkidetza Batzordearenik koordinazio espazioak egonkortu. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 1.2.3.2. Koordinazio egitura malgua eta birakorra formalizatu, emakumeen elkarteei eta banakako emakumeei zuzendutako gogoeta-ekintza espazio bat sortzea helburu duena. | Kuadrillako Berdintasun zerbitzua | X | X | X | X |


18

# 1. ARDATZA- 1. PROGRAMA: Genero ikuspegia zeharkakotu ahal izatea eta nahi izatea

HELB EST 1.2

- Kuadrillako egitura organikoan sartutako genero arkitektura bat finkatu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT. 1.2.1.**
1.2.1. Kuadrilla mailan berdintasuna sustatzeko estrategia bat zabaltzeko aukera ematen duten lan egitura eta harremanak finkatu.

- ❑ Kuadrillako Berdintasun Mahi politikoaren urteroko bilerako ehunekoa eta udalen ordezkaritza maila *(Iturria: bilera-aktak)*
- ❑ Udalen organigrametako berdintasun kontuetan politiken eremuaren maila politikorako arduradun irudiaren formalizazioa eta inplikazio maila *(Iturria: udalen barneko antolaketa).*

**HELBURU ESTRAT. 1.2.2.**
1.2.2. Erantzukizun partekatutik, eremu eta zerbitzu ezberdinetan genero ikuspegia barne hartzea bultzatu, partekatutako koordinazio egituretan parte hartuz.

- ❑ Kuadrillako Berdintasun Batzorde Teknikoaren bileren kopurua(iturria: bilera-aktak)
- ❑ Kuadrillako Berdintasunerako I. Planaren neurrien garapenean inplikatutako teknikari guztien ehunekoa (Iturria: Kuadrillako Berdintasunerako I. Planaren segimenduaren esparruan egindako kalkulua).


19

# 1. ARDATZA- 1. PROGRAMA: Genero ikuspegia zeharkakotu ahal izatea eta nahi izatea

HELB EST 1.2

- Kuadrillako egitura organikoan sartutako genero arkitektura bat finkatu

**HELBURU ESTRAT. 1.2.3.**
1.2.3. Kuadrillako berdintasun politikak garatzean herritarren parte-hartzea sustatu, Kuadrillako klabe diren eragileekin lan-egituren eta harremanen bidez, eta zehatzago emakumeen elkarteekin eta banakako mailan.

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

- ❑ Kuadrillako bi ikastetxeko Ampekik egindako bilerak (Iturria: bilera-aktak).
- ❑ Berdintasun zerbitzuaren eta Kuadrillako emakumeen arteko koordinazio egitura parte hartzen duten emakumeak eta emakumeen elkarteen ehunekoa (Iturria: bilera-aktak)


20

# 1. ARDATZA- 2. PROGRAMA: Genero zeharkakotasuna ezagutu eta neurtu

Administrazio publikoen gobernantzan genero ikuspegia sartzeak politikari zein teknikariek pixkanaka ezagutzak hartzen joatea eskatzen du, horietatik Kuadrillan indarrean dauden desberdintasun eta diskriminazio egoerak identifikatu ahal izateko, euren ardurapeko politika eta programetan generoak duen inpaktuak baloratu ahal izateko eta, hortik, genero ikuspegia programa horien diseinutik ebaluaziora sartu ahal izateko.

Ezagutza lortzeak esku-hartzen ari den errealitatearen genero analisia egiteko aukera ematen duen informazio eta ezagutzaren kudeaketan oinarritu behar da. Honi dagokionez, Arabako Mendialdeko Kuadrillako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Planak bertan ezarritako lehentasun eta helburuei erantzuten dien informazioaren eta ezagutzaren kudeaketa ezartzeko beharrezko pausuak finkatzen joan nahi ditu.

Arduradun politikoen sentsibilizazioa oinarrizkoa da desberdintasunen aurkako borroka erakundeen agendan lehentasun bezala ezartzeko eta bere lidergoak berdintasun politika publikoen osotasunaren erantzukizun partekatua errazteko. Modu honetan, Planak erakundearen ikasketa politika sortzearen aldeko apustua egin du, esperientzia pilotuak eta formazio-ekintza proiektuak martxan jartzearen inguruan garatzen den "jakintza", tokiko eta eskualdeko eremu ezberdinen eguneroko praktikan ezarritakoa.

Azkenik, genero ikuspegia politika publikoetan zeharkatzeak gardentasuna handitzen duten eta udal eta eskualdeko erakundeen kontu hartzea hobetzen duten neurriak martxan jartzea eskatzen du, lortutako emaitzak modu egokian "neurtzeko" baldintza egokiak sortzen diren heinean.

Zentzu honetan, programak ondorengo 2 helburu estrategikoak ditu:

**2.1**

**HELBURU ESTRATEGIKOA**

- Zeharkako izaera indartsua duten berdintasun politikak nola eta zergatik ezartzearen erakunde ikasketa politika sortu

**2.2**

**HELBURU ESTRATEGIKOA**

- Kuadrillako berdintasun politikak gardentasunetik eta kontuak publikoki emateko ikuspegitik ebaluatzeko baldintzak sortu


21

# 1. ARDATZA- 2. PROGRAMA: Genero zeharkakotasuna ezagutu eta neurtu

**HELB EST 2.1**

- Zeharkako izaera indartsua duten berdintasun politikak nola eta zergatik ezartzearen erakunde ikasketa politika sortu

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.1.1. Teknikari eta politikariek politika publikoetan genero ikuspegia sartzera bideratutako formazio baliabideetan sartzea egonkortu. | 2.1.1.1. I. Planean aurreikusitako neurriak gauzatzeko ardura duen teknikarientzat genero zeharkakotasunean bi urteko ikasketa planak ezarri. | Berdintasun Zerbitzua | | X | | X |
| | 2.1.1.2. Berdintasun Batzorde Politikoaren bidez gaitasun jarraituko prozesu bat adostu, berdintasun politiken inguruan eta, zehazki, I. Planak barne hartzen dituen helburu eta neurrien garapenaren inguruan, erabakiak hartzen laguntzen duena. | Berdintasun batzorde politikoa eta Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 2.1.1.3. EUDELekin Kuadrillan euskal emakume hautetsiei zuzendutako ikastaroren bat antolatzea negoziatu - gonbidapena Arabako Administrazio Batzarretako emakumeei ere luzatuz- Virginia Woolf Basqueskolaren markoaren barruan. | Berdintasun Zerbitzua | | X | | X |
| 2.1.2. Kuadrillako berdintasun estrategia zabaltzeko oinarrietako bat izango den informazio eta ezagutza kudeatzeko sistema bat ezarri. | 2.1.2.1. Informazioa bildu eta sistematizatzeko tresnak ezarri, esku-hartzen ari den errealitatearen genero analisia egiteko eta I. Planean aurreikusitako helburuen jarraipena egiteko aukera ematen dutenak. | Kuadrillako gerentea eta udaletako idazkariak eta Kontu-Hartzaileak | X | X | X | X |


22

# 1. ARDATZA- 2. PROGRAMA: Genero zeharkakotasuna ezagutu eta neurtu

HELB EST 2.1

- Zeharkako izaera indartsua duten berdintasun politikak nola eta zergatik ezartzearen erakunde ikasketa politika sortu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT.** 2.1.1.
2.1.1. Teknikari eta politikariek politika publikoetan genero ikuspegia sartzera bideratutako formazio baliabideetan sartzea egonkortu

- ❑ Kuadrillaren Berdintasunerako I. Planaren neurrien garapenaren inguruko prestakuntzaren ordu kopurua (Iturria: Urteroko kudeaketa planen jarraipen fitxak).
- ❑ *Kuadrillako I Planaren sustapenean inplikatutako teknikariek jaso duten formakuntza kopurua ( Iturria: Urteko kudeaketa planen jarraipen fitxak)*
- ❑ Kuadrillako I Planean egindako formakuntzetan parte hartu duten politikarien kopurua. (*Iturria: Urteko kudeaketa planen jarraipen fitxak)*
- ❑ Virginia Woolf Basqueskolaren marko barruan Kuadrillan antolatutako ikastaroak *(Iturria: Virginia Woolf Basqueskola-ren programazioa).*

**HELBURU ESTRAT.** 2.1.2.
2.1.2. Kuadrillako berdintasun estrategia zabaltzeko oinarrietako bat izango den informazio eta ezagutza kudeatzeko sistema bat ezarri.

- ❑ Informazioa bildu eta sitematzeko ezarritako tresnak eta erabilitako maila *(Iturria: Urteko kudeaketa planen jarraipen fitxak)*


23

# 1. ARDATZA- 2. PROGRAMA: Genero zeharkakotasuna ezagutu eta neurtu

HELB EST 2.2

- Kuadrillako berdintasun politikak gardentasunetik eta kontuak publikoki emateko ikuspegitik ebaluatzeko baldintzak sortu

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2.2.1. Berdintasun politikak gauzatzearekin lotuta gardentasuna eta kontuak ematea handitu. | 2.2.1.1. Kuadrillako berdintasun politiken barne (Kuadrillan eta udaletan) eta kanpo ikusgarritasuna indartzen duen komunikazio estrategia zehaztu eta garatu, erakundeetatik gardentasun handiagoa eskainiz eta herritarrengan kontzientziazio gradu handiagoa sortuz. | Berdintasun zerbitzua eta Kuadrillako presidentea | X | X | X | X |
| | 2.2.1.2. Kuadrilla eta Udalen programa eta zerbitzuetako txosten eta memoriak egitean, modu progresiboan, sexuaren arabera banatutako informazioa eta esku-hartzen ari den errealitatearen genero analisia barne hartzen duen atal bat sartu. | Udaletako eta Kuadrillako teknikariak | | X | X | X |
| 2.2.2. Kuadrillan Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Planaren jarraipen eta ebaluazio sistema gauzatu. | 2.2.2.1. Batzorde Politikoak eta Berdintasun Batzorde Teknikoak Kuadrillako I. Berdintasun Planaren urteko eta jarraipena egiteko programa operatiboak egin, Kuadrillako Batzordearen berrespenarekin. | Berdintasun zerbitzua | X | X | X | X |
| | 2.2.2.2. Urteko programa operatiboetan sartutako neurrien jarraipen fitxak egin, horiek egoki erabiltzeko erantzukizun partekatuko eta neurriak gauzatzeko ardura duten eremu ezberdinen betetze gradua pixkanaka handituz. | Berdintasun zerbitzua eta teknikariak | X | X | X | X |
| | 2.2.2.3. Ebaluazio bitarteko txosten bat eta Kuadrillako I. Berdintasun Plana ezartzeko ebaluazioaren amaierako txostena egin. | Berdintasun zerbitzua | | X | | X |


24

# 1. ARDATZA- 2. PROGRAMA: Genero zeharkakotasuna ezagutu eta neurtu

HELB EST 2.2

- Kuadrillako berdintasun politikak gardentasunetik eta kontuak publikoki emateko ikuspegitik ebaluatzeko baldintzak sortu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT.** 2.2.1.
2.2.1. Berdintasun politikak gauzatzearekin lotuta gardentasuna eta kontuak ematea handitu.

- ❑ Barneko eta kanpoko komunikazio-arloetako Kuadrillaren berdintasun politiketako ikusarazietako maila: Kuadrillaren eta udalen sare sozialak, webgunea, Kuadrillaren aldizkaria, etab.. *(Iturria: komunikazio-guneen berrikustea y jarraipen fitxak)*.
- ❑ Txosten eta memoriak egitean, sexuaren arabera banatutako informazioa eta esku-hartzen ari den errealitatearen genero analisia barne hartzen duen atal bat sartzen ehunekoa *(Iturria: Arlo desberdinetako txosten eta memoriak)*

**HELBURU ESTRAT.** 2.2.2.
2.2.2. Kuadrillan Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Planaren jarraipen eta ebaluazio sistema gauzatu.

- ❑ Kuadrillako Berdintasun I. Planaren urteko kudeaketa programamen kopurua *(Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxak)*
- ❑ Kuadrillako I. Berdintasun Planeko neurrien jarraipena egiteko fitxa kopurua, urtero beste udal arlo batzuek beteak. (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxak)
- ❑ Kuadrillako Berdintasunerako I. Planaren ebaluazioko erdiko txostena *(Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxak)*
- ❑ Kuadrillako Berdintasunerako I. Planaren ebaluazioko azkeneko txostena *(Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxak)*


25

# II ZATIA
# 2. ARDATZA: Emakumeen ahalduntzea

# 2 ARDATZA- 3.PROGRAMA : Gizartea eraldatzeko ahalduntzea

Emakumeek sozio-politikan parte hartzeko estrategia bezala ahalduntzea erabiltzearen helburua da gizartea eraldatzea. Beraz, genero bazterkerien egiturazko arrazoiak zalantzan jartzean oinarritzen da, baita ondoriozko eskubideen urraketan ere, eta auto-erruztatzera edo bazterketa horiek normalizatzera daraman jazarpena barneratzea bezalako alderdi subjektiboak jorratzen ditu.

Ahalduntze prozesuek barne hartzen dituzten alderdi ezberdinen ezagutza errazteko, teoria feministak emakumeen ahalduntze eta parte-hartze osoko prozesuen planifikazioan aipatzen dituzten hiru dimentsioak adierazi dira:

- Dimentsio pertsonala: autoestima, konfiantza eta norbanakoaren gaitasunak indartu "gertatzen zaiguna" ulertzea eta ematen den testuinguru zehatzean kokatzeak suposatzen duen kontzientzia hartzearen bidez. Errealitatearen testuinguratutako ulermen honek genero harremanen gaineko eta hauek gure bizitzan duten inpaktuaren gaineko kontzientziazio handiagorako elementuak ematen ditu.
- Dimentsio kolektiboa: maila kolektiboan kontzientzia hartzea suposatzen du. Hau da, "guk, emakumeok-en" kontzientzia kolektiboa sortzea, emakumeen arteko harremanak ezartzea, elkarrekin gogoeta egitea eta partekatutako helmuga eta helburuak zehaztea behar duena.
- Gizartea eraldatzeko gaitasuna: aldaketarako banakako prozesuak ez dira nahikoak izango aldaketa sozial eta politikoak emateko aukera ematen duten antolaketa egitura indartsuak eraikitzean oinarritutako emakumeen ekintza kolektiboa sustatzen duten neurrien laguntza ez badute.

Abiapuntu honetatik, hirugarren programak ondorengo helburu estrategikoak barne hartzen ditu:

**3.1**

**Helburu. ESTRATEGIKOA**

- Kuadrillako emakumeen banakako kontzientzia eta kontzientzia kolektiboa hartzeko beharrezkoak diren baldintzak ezarri

**3.2**

**Helburu. ESTRATEGIKOA**

- Emakumeak ahalduntzeko eta maskulinitateak zalantzan jartzeko estrategiaren bidez gizarte eraldaketa proposatu.

# 2 ARDATZA- 3.PROGRAMA: Gizartea eraldatzeko ahalduntzea

HELB EST 3.1

- Kuadrillako emakumeen banakako kontzientzia eta kontzientzia kolektiboa hartzeko beharrezkoak diren baldintzak ezarri

| HELBURU ZEHATZA | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.1.1. Kuadrillako emakumeei euren interes propioak diskriminazio anitz pairatzen duten emakumeen partaidetza bermatzen duen sektore arteko ikuspegitik artikulatzeko tresnak eskaini | 3.1.1.1. Jardueren planifikazioan parte-hartzea sustatu, dinamika parte-hartzaileen bidez emakumeen kontzientzia hartzea bermatuz norbanako mailan zein maila kolektiboan ere. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 3.1.1.2. Emakumeek banakako kontzientzia zein kontzientzia kolektiboa bereganatzeko espazioetan sartzen lagundu, baliabide propiorik ez duten emakumeei garraiobideak eskainiz. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua eta Gerentzia | X | X | X | X |
| 3.1.2. Kuadrillako berdintasun politiken planifikazioan emakumeen behar eta interes estrategikoak barne hartu. | 3.1.2.1. Emakumeen elkarteekin harreman eta koordinazio espazioek, -eta emakumeekin ere-, besteren artean Kuadrillako emakumeen behar eta interes estrategikoak biltzeko funtzioak betetzen dituztela bermatu. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 3.1.2.2. Batzorde Politikoari eta Berdintasun Batzorde Teknikoari Kuadrillako emakumeen behar eta interes estrategikoak helarazi. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |

# 2 ARDATZA- 3.PROGRAMA: Gizartea eraldatzeko ahalduntzea

HELB ESTR 3.1

- Kuadrillako emakumeen banakako kontzientzia eta kontzientzia kolektiboa hartzeko beharrezkoak diren baldintzak ezarri

**HELBURU ESTRATEGIKOA.** 3.1.1.
3.1.1. Kuadrillako emakumeei euren interes propioak diskriminazio anitz pairatzen duten emakumeen partaidetza bermatzen duen sektore arteko ikuspegitik artikulatzeko tresnak eskaini.

**HELBURU ESTRATEGIKOA.** 3.1.2.
3.1.2. Kuadrillako berdintasun politiken planifikazioan emakumeen behar eta interes estrategikoak barne hartu.

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

3.1.1:

- ❑ Ahalduntze ardatzean antolatutako parte hartze metodologikoaren % kopurua.*( emakumeei zuzendutako eta dinamizaztaileei zuzendutako ebaluazio fitxak)*.
- ❑ Antolatutako ekintzetara emakumeen parte hartzea ziurtatzen dituen neurri mota eta zenbatekoa zehaztu *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.

3.1.2:

- ❑ Erreflexiorako eta parte hartzerako esparruetan jasotako balorazioen jarraipena *(esparru hauetan jasotako emakumeen balorazio fitxak)*.
- ❑ Urtero egindako Comisio Politikoaren bileren zenbatekoa eta horietako zenbatetara eramaten diren emakumeen beharrak *(Bileren aktak)*.

# 2 ARDATZA- 3.PROGRAMA: Gizartea eraldatzeko ahalduntzea

OBJ EST 3.2

- Emakumeak ahalduntzeko eta maskulinitateak zalantzan jartzeko estrategiaren bidez gizarte eraldaketa proposatu.

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.2.1. Kuadrillan Laia Eskola, Arabako emakumeen Berdintasunerako eta ahalduntzerako eskola, egonkortu. | 3.2.1.1. Laia Eskolaren markoaren barruan Kuadrillako emakumeei zuzendutako jarduerak antolatzen jarraitu.. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 3.2.1.2. Berdintasun Zerbitzuaren eta Laia Eskolaren markoaren barruan antolatutako jardueren dinamizatzaileen arteko koordinazioa indartu, Berdintasun Zerbitzuak jardueretan parte hartzen duten emakumeen behar eta interes estrategikoak jasotzen dituela bermatzeko. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 3.2.1.3. Kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren eta Laia Eskolaren arteko harreman bideak indartu, azken honek bere planifikazioan Kuadrillako emakumeen behar eta interes estrategikoak barne hartzen dituztela bermatzeko. | Kuadrillako Berdinatsun Zerbitzua | X | X | X | X |
| 3.2.2. . Kuadrillan emakumeen lidergoa eta parte-hartze soziopolitikoa egonkortu. | 3.2.2.1. Berdintasunaren alde eta gizartea eraldatzeko ikuspegitik lan egiten duten emakumeen elkarte eta taldeei lagundu eta aholkatu, Kuadrillako emakumeen erreferente izan daitezen. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 3.2.2.2. Kuadrillako emakume hautetsiek Emakundek, AFAk eta EUDELek sustatutako elkartruke espazioetan eta laguntza sareetan parte-hartzea sustatu, horietako askok kargu publikoetan sartzeko dituzten oztopoak hauteman eta ezabatzeko | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 3.2.2.3. Kontzejuetako Emakume hautetsientzako espacio bat sortu emakume horien lidergoa eta parte hartze politikoa egonkortzeko | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |

# 2 ARDATZA- 3.PROGRAMA: Gizartea eraldatzeko ahalduntzea

OBJ EST 3.2

- Emakumeak ahalduntzeko eta maskulinitateak zalantzan jartzeko estrategiaren bidez gizarte eraldaketa proposatu

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 3.2.3 Genero rolen eta estereotipoen inguruan balore aldaketa sustatu | 3.2.3.1. Emakumeen ahalduntzea eta Micaela Portilla Eskolak eskaintzen duen formazioan maskulinitateak zalantzan jartzea jorratzen duten berdintasun moduluak barne hartu. | Kulrura eta kirola Zerbitzua eta euskara Zerbiztaua | X | X | X | X |
| | 3.2.3.2. Kultura eta Euskara sailek antolatutako jardueren bidez jokabide eta jarrera matxistak zalantzan jartzen dituzten eta genero identitateen eta sexu aukeren eremuan aniztasuna sustatzen duten balore eta genero rolak sustatu | Prebentzio komunitarioa eta Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 3.2.3.3. Kuadrillako Emakume nagusiek egindako lana erakutsi eta meriztako balioa esleitu | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | | X | |
| | 3.2.3.4. Jaietan berdintasuna sustatzeko prozesu bat martxan jarri jaietako komisioak eta Kontzejuetako Juntekin. | Berdintasun Zerbiztue ta Junta Administratiboak | X | X | X | X |
| | 3.2.3.5. Turismo arlotik antolatutako ekintzetan genero ikuspegia txertatu parte hartzea bersintasunena egiteko eta emakumeen lana | Sustapen ekonomikorako Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 3.2.3.6. Lan prozesu bat martxan jarri gorputzen eta bereziki emakumeen gorputzen naturalizazio ikuspegia sustatzeko | Kuadrillako Berdintasun Zerbiztua | X | X | X | X |

# 2 ARDATZA- 3.PROGRAMA: Gizartea eraldatzeko ahalduntzea

OBJ EST 3.2

- Emakumeak ahalduntzeko eta maskulinitateak zalantzan jartzeko estrategiaren bidez gizarte eraldaketa proposatu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT.** 3.2.1.
3.2.1. Kuadrillan Laia Eskola, Arabako emakumeen Berdintasunerako eta ahalduntzerako eskola, egonkortu.

- ❑ Laia Eskolan eskainitako formakuntzaren ordu kopurua
- ❑ Laia Eskolan antolatutako ekintzetan parte hartutako emakumeen kopurua
- ❑ Berdintasun Zerbitzuaren, Laia Eskolako Ekintzen dinamizatzaileekin eta Laia Eskolako asistentzia teknikoarekin izandako bilera kopurua (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa )

**HELBURU ESTRAT.** 3.2.2.
3.2.2. Kuadrillan emakumeen lidergoa eta parte-hartze soziopolitikoa egonkortu.

- ❑ Aholkatu eta lagundu diren rakundeetako emakume kopurua *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*).*
- ❑ Kuadrillan eratutako emakume taldeen kopurua (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa)
- ❑ Virginia Woolf Basqueskolako ekintzetan parte hartzen duten emakume hautetsien kopurua. *(Asistentzia fitxen jarraipena).*
- ❑ Kontzejuetako emakume hautetsien parte hartzea eratutako espazioan eta zenbat bilera egin diren.

# 2 ARDATZA- 3.PROGRAMA: Gizartea eraldatzeko ahalduntzea

OBJ EST 3.2

- Emakumeak ahalduntzeko eta maskulinitateak zalantzan jartzeko estrategiaren bidez gizarte eraldaketa proposatu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT.** 3.2.3.
3.2.3 Genero rolen eta estereotipoen inguruan balore aldaketa sustatu

- ❑ Euskera, kirola eta kultura zerbitzuetan zenbat ekintza antolatu diren egoera matxistak zalantzan jartzen dituena eta genero identitateen aniztasuna sustazten dueña (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxak).
- ❑ Prebentzio komunitarioko arloan zenbat programetan sartu den genero ikuspegia, berintasun zerbitzuarekin korrdinazio bilerak izan ondoren. (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa *eta prebentzio komunitarioko memoriaren jarraipena)*.
- ❑ Zenbat ekintzek ikustarazten duten emakume nagusien lana.
- ❑ Zenbat jaien antolakuntzan sartzen den genero ikuspegia
- ❑ Turismo arloko zenbat ekintzetan ikustarazten den emakumeek egindako lana.

# 3. ARDATZA:
# EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKETA ERALDATU ESKUBIDEAK

# 3. ARDATZA- 4. PROGRAMA: Zaintzen gizarte antolaketa berri baterantz

Zaintzen gizarte antolaketa eremuko esku-hartzearen larritasuna zaintza lanak egun ikusten ez den, eta sozialki zein ekonomikoki akigarria eta gutxi baloratutako lan bat izaten jarraitzearekin lotuta dago, guztia funtzionatu ahal izateko beharrezkoa den lana izan arren. Emakumeak batez ere dira euren lan-egoera eta bizi-nahiak familiaren zaintza beharretara egokitzen jarraitzen dutenak, eta horrek dependentzia ekonomiko eta pobrezia handiagoko egoeran kokatzen ditu, bai orainean baita etorkizunean ere. Baita ere dira emakumeak batez ere langile gisa euren zerbitzuak zaintzeko eskaintzen dituztenak, banaka zein enpresa pribatu edo zerbitzu publikoen bidez. Honi dagokionez, azpimarratu beharra dago zaintzarena bezalako hain feminizatua dagoen sektore bateko langileen egoera: soldata txikia da, lan prekarietate handia dago eta ezkutuko lan kopuru altua, lan-baldintza duinak izatea are gehiago zailtzen duena, bereziki atzerriko emakumeen kasuan.

Zaintza eremuan erantzukizun partekatuak egungo gizartea egituratzen duten eremu ezberdinen antolaketaren zutoin izaten jarraitzen duten genero rolak, baloreak eta arauak berrikustea eskatzen du: (1) familia eremua - non genero harreman desorekatuek pisu klabea duten -, (2) lan-merkatuaren eremua - esfera pribatuaren eta lan esferaren arteko banaketa faltsuan oinarritzen dena gainontzeko bizitzaren esferen aurrean - eta (3) eremu publikoa - erantzukizun partekatua bateratzea “arazo pertsonala” izatetik benetan arazo soziala izatera pasatzeko oinarrizko papera duena-.

Herritarren zahartze-tasa eta herritar guneen dispertsio geografikoa dela eta oinarrizko zerbitzu eta baliabideak eskuratzeko zailtasunak Kuadrillako zaintza eremuak urgentzia handiagoa izatea dakar. Testuinguru horretan eta tokiko administrazioen eta Kuadrillaren eskumen markoari jarraiki, programa honek ondorengo helburu estrategikoak ditu:

**4.1**

**Helburu. ESTRATEGIKOA**

- Etxeko eta eremu profesionaleko zaintza lanak modu duin eta berdinagoan gauzatzea lortu

**4.2**

**Helburu. ESTRATEGIKOA**

Sektore publikoan eta enpresaritza sektorean erantzukizun partekatua handitu, herritarren beharretara gehiago egokitzen den zaintzaren ekonomiaren markoaren barruan

# 3. ARDATZA- 4. PROGRAMA: Zaintzen gizarte antolaketa berri baterantz

HELB EST 4.1

- Etxeko eta eremu profesionaleko zaintza lanak modu duin eta berdinagoan gauzatzea lortu

| HELBURU ZEHATZA | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4.1.1. Zaintzaileek familia barruan egiten duten ordaindu gabeko lana baloratu, erantzukizun partekatu sozial handiagoa sustatu nahian . | 4.1.1.1. Laia Eskolaren markoan Kuadrillako zaintzaileen behar eta interesak aintzat hartzen dituzten zaintzekin lotutako jarduerak antolatzea sustatu. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 5.1.1.2. Haur, gazte eta herritarrei orokorrean zuzendutako jardueretan zaintzen erantzukizun partekatuarekin lotutako gaiak sartu edo indartu.. | Zerbitzu Sozi Kulturala | | X | X | X |
| | 4.1.1.3.. Pertsona dependienteentzako zerbitzuak eskaintzea- adibidez, haurtzaindegi zerbitzua- parte hartzea bersintasunean Kuadrillatik eta Udaletatik antolatutako ekintzetan | Berdintasun Zerbitzua eta Cuadrilla eta Udaletako atalak | X | X | X | X |
| 4.1.2. Senide zaintzaileen osasun fisiko eta mentala hobetzen lagundu, ahalduntze handiagorako baldintzak sortuz. | 4.1.2.1. “Zaintzeko Zaindu” Programaren erabilera sustatu, etxez etxe laguntza psikologikoa, auto-laguntza taldeak eta senideak diren zaintzaileei formazioa eskaintzen duena, edukietan genero ikuspegia modu egokian barne hartzen dela bermatuz. | Gizarte Zerbitzuak | X | X | X | X |
| | 4.1.2.2. Udalerri ezberdinetako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joaten diren zaintzaileen genero behar eta interes estrategikoak jaso eta sistematizatu, hautemandako behar eta interesei erantzuna ematen dieten neurriak adosteko aukera ematen duen euren egoeraren gaineko diagnostikoa izan ahal izateko. | Gizarte Zerbitzuak | | X | X | X |

# 3. ARDATZA- 4. PROGRAMA: Zaintzen gizarte antolaketa berri baterantz

HELB EST 4.1

- Etxeko eta eremu profesionaleko zaintza lanak modu duin eta berdinagoan gauzatzea lortu

| HELBURU ZEHAZTAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4.1.3. Zaintzaile profesionalen formazioan eta lan-baldintzetan eragin. | 4.1.3.1. Zaintzaile profesionalei zuzendutako formazio ikastaroak sustatu, errekeritutako titulazio ofizialetan sartzea errazteko, formazioen edukietan genero ikuspegia modu egokian sartzen dela bermatzeko. Fomentar cursos de formación dirigidos a las personas cuidadoras profesionales para facilitar su acceso a las | Sustapen Ekonomikoko Zerbitzua | | X | | X |
| | 4.1.3.2. Gehien prekarizatutako feminizatutako sektoreetan ezar daitezkeen lan-baldintza duinen markoa aztertu (bereziki zaintzak eta etxeko lanak), Kuadrillako Garapen Ekonomikoko Sailak eskaintzen dituen zerbitzuetara jotzen dutenei aholkua eman ahal izateko. | Sustapen Ekonomikoko Zerbitzua | | X | | X |
| | 4.1.3.3. Zaintzaile profesionalen eskubideak zabaltzeko kanpainak sustatu, arreta berezia emanez emakume migratzaileen egoerari. | Sustapen Ekonomikoko Zerbitzua | | X | | X |
| | 4.1.3.4. Zaintzaile profesionalen eta profesionalak ez direnen arteko topaketak erraztu, bizipenak, zaintza lanaren genero analisia eta hautemandako zailtasunak gainditzeko estrategiak partekatzeko | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | | X | | X |

# 3. ARDATZA- 4. PROGRAMA: Zaintzen gizarte antolaketa berri baterantz

HELB EST 4.1

- Etxeko eta eremu profesionaleko zaintza lanak modu duin eta berdinagoan gauzatzea lortu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT.** 4.1.1
4.1.1. Zaintzaileek familia barruan egiten duten ordaindu gabeko lana baloratu, erantzukizun partekatu sozial handiagoa sustatu nahian

- ❑ Laia Eskolan antolatutako ekintzen artean zaintza lanekin zerikusia duten ekintzen zenbatekoa *(Laia Eskolan antolatzen diren ekintzen sistematizazioa)*.
- ❑ Laia eskolan antolatzen diren eta zaintzarekin zerikusia duten ekintzetan zenbat emakumek parte hartzen duten *(Laia Eskolan egiten diren ekintzen sistematizazioa)*.
- ❑ Korresponsabilitate intergenerazionalari burua eta zaintza lanei buruz antolatzen diren ekintzetan zenbta pertsonek parte hartzen dute (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.
- ❑ Pertsona dependienteentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten ekintzen zenbatekoa

**HELBURU ESTRAT.** 4.1.2.
4.1.2. Senide zaintzaileen osasun fisiko eta mentala hobetzen lagundu, ahalduntze handiagorako baldintzak sortuz.

- ❑ Zaintzeko zaindu programak eskaintzen dituen zerbitzuetara joaten diren senide zaintzaileen kopurua (Kuadrillako I Planaren jarraipenean egindako ebaluzioan).
- ❑ Gizarte zerbitzuetara joaten diren pertsonen inguruko diagnostikoa (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.

# 3. ARDATZA- 4. PROGRAMA: Zaintzen gizarte antolaketa berri baterantz

HELB EST 4.1

- Etxeko eta eremu profesionaleko zaintza lanak modu duin eta berdinagoan gauzatzea lortu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT.** 4.1.3.
4.1.3. Zaintzaile profesionalen formazioan eta lan-baldintzetan eragin.
.

- ❑ Zenbat formakuntza ikastaro egin diren zaintzaile profesionaletarako *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.
- ❑ Zenbat pertsonek parte hartzen dute zantzaileentzako antolatutako ikastaroetan *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.
- ❑ Zeintzuk diren baldintza duinak sektore feminizatuentzak- bereziki etxeko lanaei eta zaintza lanei gagozkienak (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.
- ❑ Aholkularitza lanen zenbatekoa bereziki zaintza lanei eta etxeko lanei dagozkienak *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa *eta sustapen ekonomikoko urteroko memoria).*
- ❑ Zenbat kanpana egin diren zaintzaile profesionalentzako *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.

# 3. ARDATZA- 4. PROGRAMA: Zaintzen gizarte antolaketa berri baterantz

HELB EST 4.2

- Sektore publikoan eta enpresaritza sektorean erantzukizun partekatua handitu, herritarren beharretara gehiago egokitzen den zaintzaren ekonomiaren markoaren barruan

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 4.2.1. Tokiko administrazioan eta enpresaritza ehunean pertsonen zaintzaren gaineko erantzukizun partekatua sustatu | 4.2.1.1. Udaleko eta kuadrillako langileei ordaindutako lana eta ordaindu gabeko zaintza lana bateratzeko aukera ematen dizkieten bateratze neurrien erabilera eta beharrak aztertu. | Udaletako idazkariak eta Kuadrillako Gerentzia | | | X | |
| | 4.2.1.2. Politikarien artean zaintza beharrak aintzat hartzen dituen antolaketa kultura sustatu, eta beraz, familian zaintza lanak euren gain hartzen dituzten pertsonek esfera politikoan parte-hartzea mugatzen ez dutenak | Kuadrillako Presidentea eta Berdintasun Zerbitzua | | | X | X |
| | 4.2.1.3. Kuadrillako enpresaritza ehunera zuzendutako kanpainak egin, zaintzen erantzukizun partekatua genero ikuspegitik barne hartzen dutenak. | Sustapen Ekonomikoko Zerbitzua | | | | X |

# 3. ARDATZA- 4. PROGRAMA: Zaintzen gizarte antolaketa berri baterantz

HELB EST 4.2

- Sektore publikoan eta enpresaritza sektorean erantzukizun partekatua handitu, herritarren beharretara gehiago egokitzen den zaintzaren ekonomiaren markoaren barruan

**HELBURU ESTRAT.** 4.2.1
4.2.1. Tokiko administrazioan eta enpresaritza ehunean pertsonen zaintzaren gaineko erantzukizun partekatua sustatu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

- ❑ Udaletako eta Kuadrillako langileentzako definitu diren kontziliazio neurrien mota eta zenbatekoa *(Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa).*
- ❑ Sexuaren arabera banatutako langileen portzentaia kontziliazio neurriak hartzen dituena. (Portzentaia planaren jarraipen sistemarekin egingo da).
- ❑ Enpresentazko egin diren kontziliazio kanpainen zenbateko eta zenbat izan diren genero ikuspegiarekin egindako kanpanen portzentaia *(Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa).*

# 3. ARDATZA- 5. PROGRAMA: Emakumeen autonomia ekonomikorantz

Lan merkatua praktikan berdintasun formalaren eta desberdintasun materialaren arteko distantzia islatzen den eremuetako bat da. Horregatik, ezinbestekoa da desberdintasun hau argi izatea enplegu inguruko politika publikoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzerako orduan. Horrela dio otsailaren 18ko 4/2005 euskal legeak, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoak, 36. artikuluan administrazio publikoei aukera berdintasuna eta emakume eta gizonen arteko tratua benetakoa eta eraginkorra izateko baldintzak sustatzeko betebeharra ezartzen dienean, bai norberarentzat eta baita besterentzat lan egitean ere zein lan-baldintzetan, formazioan, sustapenean eta soldatetan ere.

Agindu hau betetzeko , Kuadrillako formazio eta enplegu zerbitzuek lan merkatuan existitzen diren diskriminazio eta desberdintasun egoerak eta horien arrazoiak hautemateko eta aztertzeko gaitasuna izan beharko dute, arreta berezia emanez emakumeen kolektibo ahulenei, euren politika eta programen diseinu eta ezarpenek emakumeen berehalako beharrei erantzuteko (behar praktikoak), baita epe ertain-luzean dituzten interesei ere (kokapen estrategikoa). Era berean, martxan jarritako zerbitzu eta programen genero inpaktuaren analisia egin ahal izatea beharrezkoa da, genero joerak erreproduzitzen ari dituzten edo ez baloratu ahal izateko eta emaitzak genero berdintasun terminoetan baloratu ahal izateko.

Lan merkatuan indarrean dauden genero desberdintasun eta diskriminazio egoera hauek hauteman eta aztertu ahal izateko lehendabiziko pausu bat -baita martxan jarritako zerbitzu eta programen genero inpaktua egin ahal izateko ere-, formazio eta enplegu politiken gaineko informazioa sistematizatu eta genero analisia egiteko aukera ematen duten tresnak ezartzea da. Modu horretan Kuadrillako emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa egitean identifikatutako informazioaren eta ezagutzaren kudeaketaren inguruan hautemandako gabeziari erantzunez.

Esandako guztiagatik, programa honek ondorengo helburu estrategikoa du:

5.1

**Helburu. ESTRATEGIKOA**

- Kuadrillako emakumeak enpleguan sartzeko baldintzak hobetzen lagundu

# 3. ARDATZA- 5. PROGRAMA: Emakumeen autonomia ekonomikorantz

HELB EST 5.1

- Kuadrillako emakumeak enpleguan sartzeko baldintzak hobetzen lagundu

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 5.1.1. Emakumeek lan-merkatuan sartzeko eta mantentzeko dituzten oztopoak ezabatzen lagundu | 5.1.1.1. Kuadrillako formazio eta enplegu zerbitzu eta programetan genero inpaktuaren analisia egiteko aukera ematen duen informazioaren kudeaketa sistema ezarri, eta lan-merkatuan genero desberdintasun eta diskriminazio egoerak hautematen laguntzen duena. | Sustapen Ekonomikoko Zerbitzua | X | X | | |
| | 5.1.1.2. Egindako analisitik sortutako ekintza zehatzak zehaztu eta adostu, formazio eta enplegu zerbitzu eta programek Kuadrillako emakumeen praktika eta interes estrategikoen beharrei erantzuteko, emakumeen kolektibo ahulenei arreta berezia emanez. | Sustapen Ekonomikoko Zerbitzua | | | X | X |
| | 5.1.1.3. Emakumeek sortzaileen sare bat sortu, amankomuneko esperientziak, praktika onak partekatzeko eta emakumeen lanari bisibilitatea emateko | Berdintasun Zerbitzua eta Sustapen Ekonomiko Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 5.1.1.4. Formazio eta enplegu programen barruan antolatutako jardueretan gidabaimena edo ibilgailu propioa ez duten pertsonei sartzea erraztu | Udaletako Alkateak eta Kuadrillako Presidentea | X | X | X | X |
| | 5.1.1.5. Gidabaimena lortzeko baliabide propiorik ez duten Kuadrillako emakumeei zuzendutako gidabaimena lortzeko diruz lagundutako formazio ikastaroak sustatu. | Sustapen Ekonomikoko Zerbitzua | | X | | X |

# 3. ARDATZA- 5. PROGRAMA: Emakumeen autonomia ekonomikorantz

HELB EST 5.1

- Kuadrillako emakumeak enpleguan sartzeko baldintzak hobetzen lagundu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT** 5.1.1.
5.1.1. Emakumeek lan-merkatuan sartzeko eta mantentzeko dituzten oztopoak ezabatzen lagundu

- ❑ Kuadrillako Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuko informazioa sistematizatzeko ezarritako tresna formalen *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.
- ❑ Kuadrillako Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuak Kuadrillako emakumeen beharrei hobeto erantzuteko zehaztutako ekintzen kopurua *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.
- ❑ Formakuntzarako eta enplegurako ezarritako neurri kopurua, garraio neurriak esate baterako *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.
- ❑ Emakume sortzaileen sarean parte hartzen duten emakume kopurua eta antolatzen diren ekintzak.

# II ZATIA
# 4. ARDATZA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

# 4. ARDATZA- 6. PROGRAMA: Indarkeria matxistaren aurkako esku-hartze integralerantz

Indarkeria matxistarik gabeko zerumugarantz abiatzeak prebentziotik indarkeria kasuak hauteman eta horiei arreta ematera arte doan continuum baten puntu ezberdinetan irmo ekitea eskatzen du. Indarkeria matxistaren prebentzioaren inguruan lan egiteak sexu-genero-sexualitate sistema eta horretatik sortzen diren genero harremanak eusten dituzten partekatutako balore eta sinesmen sistema osoan esku-hartzea dakar. Zentzu honetan, aipatu beharra dago indarkeria matxistak indarkeria sexista barne hartzen duela, hau da, emakumeei emakume izateagatik zuzendutako indarkeria mota oro. Baita normaltasun parametro bihurtutako sexu-genero-sexualitate eskemaren alde bakarreko harremanari aurre egiten dioten gorputz guztietara zuzendutako gainontzeko indarkeria matxistak ere.

Arretari dagokionean, 4/2005 Legeak indarkeria matxistari aurre egiteko koordinazio mekanismo zehatzak ezartzen ditu, instituzioen arteko kolaborazio akordioak sinatzea bereziki sustatuz, “etxeko tratu-txarren eta sexu-jazarpen kasuen aurrean koordinatutako jarduera eraginkorrean laguntzeko eta biktimei arreta osoa eta kalitatezkoa bermatzeko”. Arabako Mendialdeako Kuadrillaren kasuan, 2017an Indarkeria Matxistaren egoeraren gaineko diagnostikoa egin zen, gomendioen artean hauek planteatzen dituena: erakundeen arteko koordinazio protokolo bat egin, indarkeria matxistaren biktimekin prebentzioa, hautematea, arreta eta esku-hartzea hobetzeko; politikariei, teknikariei zein herritarrei eta klabe diren eragileei zuzendutako oinarrizko formazioa; arretara zuzendutako baliabideak handitzea; datuak sistematizatzeko elkarrekiko metodologia bat diseinatu; prebentzioa eta arretaren arteko dikotomia gainditzen duen elkarrekiko lana sustatu.

Azkenik, berdintasun plan hau egiteko prozesua Lantaronen emakume baten hilketarekin batera eman zela azpimarratu behar da. Hilketa honek sortu zuen inpaktu soziala, egindako diagnostikoaren emaitzekin batera, indarkeria matxistaren prebentzioaren gaineko lan-ildo bat martxan jartzeko beharra eta Kuadrillan indarkeria pairatzen duten emakumeen arreta hobetzeko koordinazioa mahai-gaineratu dute.

Hauek dira programa honen helburu estrategikoak:

**6.1**

**Helburu. ESTRATEGIKOA**

- Indarkeria matxistaren prebentzioa Kuadrillako klabe diren eremu ezberdinak barne hartzen dituen esku-hartze osoko prozesu baten bidez jorratu

**6.2**

**Helburu. ESTRATEGIKOA**

- Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei arreta ematen dieten pertsona eta erakundeen lan eta koordinazio prozesuak indartzeko baldintzak sortu.

# 4. ARDATZA- 6. PROGRAMA: Indarkeria matxistaren aurkako esku-hartze integralerantz

HELB EST 6.1

- Indarkeria matxistaren prebentzioa Kuadrillako klabe diren eremu ezberdinak barne hartzen dituen esku-hartze osoko prozesu baten bidez jorratu

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 6.1.1. Arreta hobetzeko koordinazioaren inguruan prozesuekin lotura ezartzen duen indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko esku-hartze osoa martxan jarri. | 6.1.1.1. Duela gutxi sortutako hezkuntza partekatuko mahaiaren markoan, ikasleekin esku-hartzea eta irakasle eta familien gaitasuna pixkanaka barne hartzen duen indarkeria matxistaren prebentzioaren gaineko lan-ildo bat zabaldu. | Berdintasun Zerbitzua eta Prebentzio Soziokomunitariko Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 6.1.1.2. Ikasleei zuzendutako esku-hartze lana Kuadrillan existitzen diren eta sortzen doazen gazteei zuzendutako programa eta zerbitzuetara zabaldu (Iruña Okako Gaztelekua, Erribera Beitiako Gazte Konektion, Erribera Beitiako Kaleko Hezkuntza Zerbitzua...). | Animazioa Soziokulturaka eta Prebentzio Komunitarioa | X | X | X | X |
| | 6.1.1.3. Laia Eskolaren markoan, indarkeria matxistaren inguruko gaitasun eta sentsibilizazio ildo bat ireki, indarkeria matxistaren prebentzioaren inguruan egiten den lana lagundu eta indartzen duena. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 6.1.1.4. Udaletako politikariei zuzendutako sentsibilizazio eta formazio saioak antolatu, indarkeriaren normalizazioa apurtzen duena eta eremu honetan erabakiak hartzen laguntzen duena, indarkeria matxistaren inguruko errealitate hurbilaren ezagutzatik. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |

# 4. ARDATZA- 6. PROGRAMA: Indarkeria matxistaren aurkako esku-hartze integralerantz

HELB EST 6.1

- Indarkeria matxistaren prebentzioa Kuadrillako klabe diren eremu ezberdinak barne hartzen dituen esku-hartze osoko prozesu baten bidez jorratu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT** 6.1.1. .
6.1.1. Arreta hobetzeko koordinazioaren inguruan prozesuekin lotura ezartzen duen indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko esku-hartze osoa martxan jarri.
.

- ❑ Gazteei zuzendutako ekinten kopurua indarkeria matxista prebenitzeko helburuarekin *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.
- ❑ Indarekria matxista prebenitzeko antolatzen diren ekintzetan Kuadrillako gazteen kopurua *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.
- ❑ Laia Eskolaren barruan indarkeria matxista prebenitzeko antolatu diren ekintza kopurua *(*Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*)*.
- ❑ Indarekeria matxista prebenitzeko eta normalizazioarekin apurtzen laguntzen diren ekintzetan politikarien zenbatekoa parte hartzen duen *(ekintzetan egiten den balorazio fitxa)*.

# 4. ARDATZA- 6. PROGRAMA: Indarkeria matxistaren aurkako esku-hartze integralerantz

HELB EST 6.2

- Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei arreta ematen dieten pertsona eta erakundeen lan eta koordinazio prozesuak indartzeko baldintzak sortu

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 6.2.1. Erakundeen arteko Koordinazio Protokolo bat martxan jarri, genero indarkeria eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko | 6.2.1.1. Koordinazio Protokolo bat egiteko aholkularitza teknikoa kontratatu, Kuadrillan genero indarkeria eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko. | Kuadrillako Presidentea | X | X | | |
| | 6.2.1.2. Koordinazio teknikoko mahai bat sortu eta dinamizatu, genero indarkeria eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei arreta ematen dieten erakundeen artean indarkeria matxista kasuen aurrean jarduera eredu homogeneoetan (analisia, hautematea eta arreta) aurrera egitea helburu dutenak | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 6.2.1.3. Kuadrillan ematen diren indarkeria matxista kasuen gaineko informazioa sistematizatzeko erremintak diseinatu eta ezarri, arretan esku-hartzen duten erakunde ezberdinen arteko elkarrekiko metodologia ezartzen duena, Kuadrillan existitzen den errealitatearen ikuspegi globala izateko aukera ematen dueña | Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Zerbitzua | | X | X | X |
| | 6.2.1.4. Kuadrillako Berdintasun Batzorde Politikoaren barruan Kuadrillako Erakundeen arteko Koordinazio Protokoloa egiteko prozesua maila politikoan laguntzen duen lan-mahaia osatu | Kuadrillako Presidentea eta Berdintasun Zerbitzua | X | X | | |
| | 6.2.1.5. Kuadrillako Genero Indarkeria eta Sexu-Erasoen biktima diren emakumeen Arreta Hobetzeko Erakundeen arteko Koordinazio Protokoloa onartu. | Kuadrillako Batzarra | | X | | |

# 4. ARDATZA- 6. PROGRAMA: Indarkeria matxistaren aurkako esku-hartze integralerantz

**HELB EST 6.2**

- Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei arreta ematen dieten pertsona eta erakundeen lan eta koordinazio prozesuak indartzeko baldintzak sortu

| HELBURU ZEHATZAK | NEURRIAK | ATAL ERANTZIULEA | KRONOGRAMA 2018 | 19 | 20 | 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 6.2.2. Indarkeria matxistan erakundeen ikasketa eraginkorra sustatzen duten formazio-ekintza dinamikak indartu | 6.2.2.1. Koordinazio teknikoko mahaia osatzen duten pertsonen formazio eta gaitasun beharrak jaso eta modu progresibo eta jarraituan identifikatutako beharrei erantzuna ematen dieten formazioak eskaini. | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 6.2.2.2. Kuadrillako Berdintasun Batzorde Politikoko politikariei aldizkako formazioa ezarri, Kuadrilla mailan genero indarkeria eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko Erakundeen arteko Koordinazio Protokolo bat egiteko eta ezartzeko prozesuari bultzada ematearen inguruan euren funtzioak indartzeko | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | X | X | X | X |
| | 6.2.2.3. Kontzejuetako presidenteei indarkeria kasuen prebentziorako oinarrizko formakuntza emeta | Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua | | X | | X |

# 4. ARDATZA- 6. PROGRAMA: Indarkeria matxistaren aurkako esku-hartze integralerantz

HELB EST 6.2

- Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei arreta ematen dieten pertsona eta erakundeen lan eta koordinazio prozesuak indartzeko baldintzak sortu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT.** 6.2.1.
6.2.1. Erakundeen arteko Koordinazio Protokolo bat martxan jarri, genero indarkeria eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko

- ❑ Indarkeria jasten dute emakumeen arreta hobetzeko taldean egindako bilera kopurua (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa).
- ❑ Komisio teknikoko mahaian parte hartu duten pretsonen kopurua *(bileren aktak)*.
- ❑ Kuadrillako indarkeria kasuetarako eratutako jarraipen tresnak eta makanismoak informazioa jasotzeko (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa).
- ❑ Kuadrillak adostutako Indarkeri *(Kuadrillako Batzarreko akta).*
- ❑ *Gizarte zerbitzuetatik bideratutako errekurtsoen haunditze kopurua* (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa *eta gizarte zerbitzuetako memoria).*

# 4. ARDATZA- 6. PROGRAMA: Indarkeria matxistaren aurkako esku-hartze integralerantz

HELB EST 6.2

- Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei arreta ematen dieten pertsona eta erakundeen lan eta koordinazio prozesuak indartzeko baldintzak sortu

## PROZESUKO ETA JARRAIPENEKO ADIERAZLEAK

**HELBURU ESTRAT.** 6.2.2.
6.2.2. Indarkeria matxistan erakundeen ikasketa eraginkorra sustatzen duten formazio-ekintza dinamikak indartu.

- ❑ Indarkeriari aurre egiteko Portokoloaren inguruan egindako formakuntza saioetan parte hartutako zenbatekoaren kopurua (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*).*
- ❑ Protokoloaren koordinazio teknikoan parte hartzen duten pertsonen kopurua *(Formakuntza saioen ebaluazio fitxa).*
- ❑ Komisio politikoan egindako formakuntza saioen kopurua Indarkeriazko Protokoloa egiterakoan (Iturria: Urteko Kudeaketa Planaren jarraipen fitxa*).*
- ❑ Protoloa egiteko eratu den talde politikoan, zenbat politikari etorri diren egin diren formakuntza *(formakuntza saioetako baloraio fitxak).*

# III. ZATIA

# ARABAKO MENDIALDEAKO KUADRILLAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO I. PLANAREN KUDEAKETA EREDUA

2018-2021

# III. KUDEAKETA EREDUA / 1 garapen eta jarraipen sistema

## Kuadrillako Berdintasun Saila

1 Berdintasun Teknikaria

- Kuadrillako I. Berdintasun Planaren diseinua, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa proposatzeko ardura duen organo bultzatzailea da.
- Kuadrillako Berdintasun Mahai Teknikoarekin eta Berdintasun Batzorde Politikoarekin urteko plan operatiboen egitea koordinatzen du. Beharrezkoak diren egokitzapenak ezarri eta egiteko kronogramen berrikuspena eta neurri bakoitzaren jarraipen fitxak egitea eta horiek erabiltzea koordinatzen du.
- I. Planaren markoaren barruan Berdintasun Zerbitzuak urtero programatutako ardura neurriak zuzenean ezartzen ditu.
- Udal eta Kuadrillako teknikariak euren politiketan genero ikuspegia sartzearekin lotutako aholkuak ematen dizkie, urteko plan operatiboen eta horretarako sortutako lan talde teknikoen markoan irizpide komunak ezarriz.
- I. Planaren jarraipen organo tekniko eta politiko ezberdinak deitu eta dinamizatzen ditu.
- I. Planaren ebaluazio sistema koordinatzen du.

## Kuadrillako Berdintasun Batzorde Teknikoa

I. Planaren esku-hartze eremuetako teknikari arduradunak

- Urteko plan operatiboen diseinuan parte hartzen dute, garatuko dituzten euren erantzukizunpeko neurriak lehenetsiz, neurri horien garapenaren jarraipen fitxak betez eta kasu bakoitzean beharrezkoak diren egokitzapenak eginez.
- I. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren datuak biltzen dituzte.
- Urtero programatutako eta euren esku-hartze eremuan dauden neurrien ezarpena zuzentzen dute, zeintzuen ardura nagusia duten.

## Udaletako Berdintasun erreferentziadun teknikariak

Udaletako Idazkari eta Kontu-hartzaileak

- Funtzio nagusien arten Berdintasun Zerbitzuaren eta Udalen arteko harremana eta informazioa helaraztea bermatzea dago.
- Udalerrietan berdintasun estrategiaren zabalpenarekin lotutako lana maila teknikoan kudeatzen dute.

# III. KUDEAKETA EREDUA / 1 garapen eta jarraipen sistema

## Kuadrillako Batzarra

Udalek esleitutako batzarkideak

- Kuadrillan Emakume eta Gizonen I. Berdintasun Plana onartu du.
- Berdintasun urteko planifikazioa onartu du.
- Berdintasun urteko aurrekontu proposamena onartu du.
- Berdintasun politikaren garapenaren eta horren ebaluazioaren urteko jarraipena egiten du.

## Kuadrillako Berdintasun Batzorde Politikoa

Udaletako berdintasun politiken arduradun politikoak

- Programa garatzeko urteko eta aurrekontu programa operatiboak egiteko zuzentarauak ezartzen ditu.
- Kuadrillako Batzarrean jakinarazi edo erabaki beharreko proposamenak egiten ditu.
- Berdintasun politiken garapenaren jarraipena egiten du eta urteko programa operatiboak ezartzea onartzen du.
- Udalen eta Kuadrillaren artean emakume eta gizonen arteko berdintasun alorrean etengabeko harreman organoa da.

## Kuadrilla mailako Erreferente politikoa

Kuadrillako Presidentea

- Kuadrillako emakume eta gizonen arteko berdintasun estrategia sustatzen duen instantzia maila politikoan ordezkatzen du.
- Maila politikoan kuadrillako Berdintasun politiken gaineko erakundeen arteko harremana bere gain hartzen du.
- Kuadrillako Batzarrean emakume eta gizonen arteko berdintasunaren estrategia zabaltzearen inguruan ezarritako akordioak sustatzeko ardura du.

# III. KUDEAKETA EREDUA / 1. Ebaluazio eta jarraipen sistema

**LAN TEKNIKOKO ESPAZIOAK ETA HARREMANA KLABE DIREN ERAGILEEKIN**

| | |
|---|---|
| Guraso Elkarteekin koordinazio espazioak | • Osaera: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua, Kuadrillako 2 Gurasoen Elkarteetako ordezkariak eta Prebentzio Komunitarioko teknikariak.<br>• Dinamizatzailea: Berdintasun Zerbitzua |
| Indarkeriaren eremuko erakundeen arteko I. koordinazio Protokoloa garatzeko mahai teknikoaviolencia | • Osaera: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua, OGZ, Ertzaintza, Osakidetza, Ikastetxeak<br>• Dinamizatzailea: Berdintasun Zerbitzua |
| Harreman ibiltariko espazioa emakumeen ehun asoziatiboarekin: | • Osaera: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua, emakumeen elkarteak eta emakumeak euren izenean.<br>• Dinamizatzailea: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua |
| Berdintasun Teknikarien Lurralde Sarea | • Osaera: Lurralde Historikoko 6 Koadriletako Teknikariak, AFA<br>• Dinamizatzailea: AFA |
| I. Plana garatzeko azpi-batzorde teknikoak | • Osaera: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua eta dagokion esku-hartze eremuko teknikari arduraduna<br>• Dinamizatzailea: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua |

**Funtzioak:**

- ✓ I. Planaren Urteko Programa Operatiboak zehazten laguntzen dute.
- ✓ Berdintasun Zerbitzuk I. Planaren neurriak ezartzean inplikatutako eremu eta erakundeentzat beharrekoa den banakako laguntza eta laguntza kolektiboa artikulatzeko aukera ematen dute.
- ✓ Urteko Programa Operatibo bakoitzean aurreikusitako neurrien garapenaren gaineko informazio trukaketan laguntzen dute.
- ✓ I. Planaren jarraipen eta ebaluazio mekanismoetan parte hartzen dute.
- ✓ Erakundeen koordinazioa errazten dute.

## URTEKO KUDEAKETA PLANAK ETA EBALUAZIO TXOSTENAK

2.2 helburu estrategikoan ezartzen den bezala "Kuadrillako berdintasun politikak gardentasunetik eta kontuak publikoki emateko ikuspegitik ebaluatzeko baldintzak sortu" plan honen ebaluazio eta jarraipen sistema sostengatzen da, Kuadrillan osatutako Mahai Politiko eta Berdintasuneko Komisio Teknikoko kideak urtero egiten eta onartzen duten urteko kudeaketa planenetan. Kuadeaketa planetan adostutako neurrien jarraipena, jarraipen fitxen sistematizazioaren bidez egingo da (fitxa eredua planaren atal honetan dago).

Halaber, planaren jarraipen honetan aurreikusten da erdiko ebaluazio txoten bat, zeinek erakutsiko digu emandako aurrerapausoak, zailtasunak eta erronkak. Horrela, hurrengo urteko kudeaketa planetan neurriak indartuko dira aurreikusitako helbururak betetze aldera. Azkeneko ebaluazio txostenak, lau urteren bukaeran egiten dena, datozen urteetako erronkak zehaztuko ditu.

## INFORMAZIOAREN SISTEMATIZAZIOA

Planifikazioaren jarraipenak eta ebaluazioak informazioaren sistematizazioa eskatzen du. Sistematizazio horrek ahalbidetu behar du informazioa biltzea eta hausnartzea eta emaitzen xedea bat datozela aurretik ezarritako helburuekin.

Abiapuntu horretatik, eta kontuan izanda planifikazio prozesu honen informazioaren bilketan aurkitutako sistematizazio falta, neurri zehatz batzuk barneratzen dira informazioaren sistematizazioa lortzeko.

Neurri horiekin informazio tresna batzuk sortuko dira Planaren jarraipen eta ebaluaziorako. Halaber, politika eta programa lokalen genero inpaktua egitea ahalbidetuko dute.


57

**BETETZE ETA PROZESU ADIERAZLEAK**

Ekintza eta helburuen betetze maila neurtzeko I.Planaren ezarpena ebaluatu ahal izateko beharrezko adierazle sorta ezarri da, honekin lotuta:

a) Azaldu behar dira zehazki zeintzuk diren prozesuan erabiliko diren adierazleak, beteko ez diren espektatibak ez izateko.

b) Errealistak izan behar gara urtero teknikoki eta eskuz hartu dezakeen denbora kalkulatzeko, eta prozesuko adierazleak ezartzen duena betetzeko. Ebaluaziorako sistema bat koordinatzea ez da lan erraza, bakoitzaren prozesu adierzleak betetzea aldera edo beste arlotako teknikariei aholkularitza ematea bada ere.

c) Gomendagarria da egitea esfortsua denbora tarte jarrai batean, horrela egiten ez bada, Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Planaren azkeneko ebaluazioari balioa kenduko lioke. Ondorioz, balorazio kuliitatiboak egitera mugatu beharko litzateke, datu kuantitatiboak eta garapenekoak jaso beharrean.

Horren ondorioz, Kuadrillako Emakumeen eta Gizonen Berdintasun plan honen ebaluazio sistema zentratu egiten da ezarpen maila zein den ezagutzera. Hau da, betetze maila zein izan den ebaluatzen du eta sortutako lan prozesuen ekarpenak aztertzen ditu. Ebaluazio honek ikaskuntzan eta hobetzean zentratzen da, eta, horretarako, erabakiak hartzeko behar diren datu kuantitatibo eta kualitatiboak barne hartzen ditu.

Guzti hori lortzeko, dokumentu honetan **prozesuko eta jarraipeneko adierazle** batzuk sartzen dira. Horiek I Planaren helburu zehatz bakoitzari egokitzen zaizkio. Para ello se incluye en el presente documento una **batería de indicadores de proceso y seguimiento,** aplicados a cada uno de los objetivos específicos del I Plan.

Zehaztu behar dugu ez gaudela inpaktuko ebaluaketa baten aurrean, neurketa mota honek bigarren mailako iturri ezberdinen konbinaketa behar du gainontzeko jarraipen eta ebaluazioko iturriekin (adibidez, kaleko edo etxeko inkestak egitea zeinek kostu ekonomiko handia duen).


58

# III. KUDEAKETA EREDUA / 2 Ebaluaketa sistema

| ARDATZA ETA HELBURU ESTRATEGIKOA: | | |
|---|---|---|
| **Helburu seatza** | **Zº** | |
| **Neurria** | **Zº** | |
| **Azalpena** | | |
| **Atal Erantzuleak** | | Inbertsioaren neurketa eta Zenbatekoa |
| **Beste atalak eta entitate arduradunak** | | **Kronograma** |
| **Jarraipena** | **Betetze maila:** | **Prozesuaren adierazleak** |
| | Totala / Patziala<br>Hasi gabe | |
| **Neurriaren garapenaren jarraipena** | | |

**JARRAIPEN FITXAREN PROPOSAMENA:**

Taula honetan urteko programa operatiboen jarraipena egiteko fitxa eredua proposatu da

# III. KUDEAKETA EREDUA / 2 Ebaluaketa sistemak eta baliabide ekonomikoak

### BALIABIDE EKONOMIKOAK

Plan honen kudeaketak baliabide ekonomiko zehatzak izango ditu, urtero zehaztuko direnak eta ondorengo iturrietatik etorriko direnak:

a) Udalen ekarpenak.

b) Kuadrillaren ekarpenak.

c) Kanpoko finantzazio iturriak.

### PROGRAMA OPERATIBO BAKOITZAREN JARRAIPEN FITXAK

Programa operatiboetan sartutako neurrien jarraipen fitxek "inbertsio" semaforo bat barne hartuko dute, hauxe adierazteko:

BERDEZ: teknikari eta politikarien **lan-orduen** inbertsioaren bidez gauzatuko diren neurriak.

HORIZ: teknikari edota politikarien lan-orduez gain, adituen zerbitzu edo aholkularitza kontratatzea beharko duten **funts propioen** erabilera.

LARANJAZ: gauzatzeko **diru-laguntza bat edo batzuk** lortzea ere beharko duten neurriak, eta beraz, hura ezartzea urteko programa operatiboak diseinatzerakoan bermatu ezin direnak

Baliabide ekonomikoak esleitzea Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako edozein Plan ezartzeko alderdi klabea da. Zentzu honetan, Kuadrillako I. Berdintasun Plana gauzatzeko ardura duten tokiko erakundeek eta Kuadrillakoek emakume eta gizonen berdintasunerako politikak kudeatzera zuzendutako ekarpena pixkanaka handitzeko konpromisoa hartuko dute.

# III. KUDEAKETA EREDUA / 3 Baliabide ekonomikoak

## 2018 Programetarako Aurrekontua– I ARDATZA GOBERNU ONA

| ARDATZAK | PROGRAMAK | HELBURU ESTRATEGIKOAK | NEURRIAK | Aurrekontua 2018 |
|---|---|---|---|---|
| I ARDATZA / GOBERNU ONA | **1. PROGRAMA –** Zeharkakotasuna ahal eta nahi izatea | **HEL. EST. 1.1 Kuadrillako berdintasun politikekiko konpromiso politiko eta teknikoa egonkortu** | Politikariekin sentsibilizazio eta erreflexio saioak | |
| | | **HEL. EST. 1.2.** Kuadrillako egitura organikoan sartutako genero arkitektura bat finkatu | | |
| | **1.PROGRAMA** – Genero ikuspegia zeharkakotu Ahal izatea eta nahi izatea | **HEL. ESTRAT. 2.1.** Zeharkako izaera indartsua duten berdintasun politikak nola eta zergatik ezartzearen erakunde ikasketa politika sortu | Formakuntza / Kapazitazioa teknikariekin eta politikariekin | |
| | | | Informazioa biltzeko eta sistematizatzeko tresnak ezarri | |
| | | **HEL. EST. 2.2.** Eskualdeko berdintasun politikak gardentasunetik eta kontuak publikoki emateko ikuspegitik ebaluatzeko baldintzak sortu | | |
| | | | **I ARDATZAREN TOTALA GOBERNANTZA** | **1.000** |

## 2018 Programetarako Aurrekontua– II ARDATZA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

| ARDATZA | PROGRAMAK | HELBURU ESTRATEGIKOAK | NEURRIAK | Aurrekontua 2018 |
|---|---|---|---|---|
| 2 ARDATZA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | | **HEL. EST. 3.1** Kuadrillako emakumeen banakako kontzientzia eta kontzientzia kolektiboa hartzeko beharrezkoak diren baldintzak ezarri | Garraioa ahalbidetu | |
| | | **HEL. EST. 3.2.** Emakumeak ahalduntzeko eta maskulinitateak zalantzan jartzeko estrategiaren bidez gizarte eraldaketa proposatu | Laia Eskolan egiten diren ekintzak | |
| | | | Euskara eta kulturan egiten diren ekintzak | |
| | | | **2 ARDATZAREN TOTALA AHALDUNTZEA** | **5.000** |

# III. KUDEAKETA EREDUA / 3 Baliabide ekonomikoak

## 2018 Programetarako Aurrekontua– III ARDATZA EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKETA ERALDATU ESKUBIDEAK BERMATZEKO

| ARDATZAK | PROGRAMAS | HELBURU ESTRATEGIKOAK | NEURRIAK | Aurrekontua 2018 |
|---|---|---|---|---|
| 3 ARDATZA EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKETA ERALDATU ESKUBIDEAK BERMATZEKO | 4. PROGRAMA – Zaintzen gizarte antolaketa berri baterantz | **HEL. EST. 4.1.** Etxeko eta eremu profesionaleko zaintza lanak modu duin eta berdinagoan gauzatzea lortu | Zaintza lanen inguruan ekintzak (Laia Eskola) | |
| | | **HEL. EST. 4.2** Sektore publikoan eta enpresaritza sektorean erantzukizun partekatua handitu, herritarren beharretara gehiago egokitzen den zaintzaren ekonomiaren markoaren barruan | | |
| | 5.PROGRAMA - Emakumeen autonomia ekonomikorantz | **HEL. EST. 5.1.** Kuadrillako emakumeak enpleguan sartzeko baldintzak hobetzen lagundu | Informazioaren gestiorako tresnak (Ssustapen Ekonomikoko Zerbitzua) | |
| | | | Emakumeen partaidetza sustatu formakuntzara eta enplegura | |
| | | | **3 ARADTZAREN TOTALA EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKETA ERALDATU ESKUBIDEAK BERMATZEKO** | **500** |

## 2018 Programetarako Aurrekontua– IV INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

| ARDATZAK | PROGRAMAK | HELBURU ESTRATEGIKOAK | NEURRIAK | Aurrekontua 2018 |
|---|---|---|---|---|
| 4. ARDATZA INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK | 6. PROGRAMA: Indarkeria matxistaren aurkako esku-hartze integralerantz | **HEL. EST. 6.1.** Indarkeria matxistaren prebentzioa Kuadrillako klabe diren eremu ezberdinak barne hartzen dituen esku-hartze osoko prozesu baten bidez jorratu | Gazteei zuzendutako ndarkeria matxista prebenitzeko programak Hezkuntza Zentroetan | |
| | | | Laia Eskolan antolatutako ekintzak indarkeria matxista | |
| | | | Polikarientzako sentsibilizazio saioak | |
| | | **HEL. EST. 6.2.** Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei arreta ematen dieten pertsona eta erakundeen lan eta koordinazio prozesuak indartzeko baldintzak sortu | Protokoloa egingo duen asistentzia teknikoa | |
| | | | Teknikarien eta politikarien formakuntza | |
| | | | **4 ARDATZA TOTALA INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK** | **11.500** |

# III. KUDEAKETA EREDUA / 3 Baliabide ekonomikoak

## 2018 Programetarako finantziazio iturriak – ARDATZ TOTALAK

| FINANTZIAZIO ITURRIAK | 2018ko Programak |
|---|---|
| Arabako Kanpezuko Mendialdeko Kuadrilla | 2.000 € |
| Kuadrillako Udalak | |
| Arabako Foru Aldundia | 8.000 € |
| Emakunde– Emakumeentzako Erakunde Publikoa | 7.500 € |
| **BERDINTASUN PROGRAMAK GUZTIRA** | **17.500 €** |

## Kuadrillako Berdintasun Teknikarirako aurrekontua 2018

| FINANTZIAZIO ITURRIAK | Langileak 2018 |
|---|---|
| Arabako Kanpezuko Menidaldeko Kuadrilla | 8.244,80 € |
| Kuadrillako Udalak | |
| Arabako Foru Aldundia | 39.913,62 € |
| **KUADRILLAKO BERDINTASUN TEKNIKARIA GUZTIRA** | **48.158,42 €** |